

## DATUEN TAULA ULERTZEKO JARRAIBIDEAK

Arabian, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan UEMAk kide diren udalerrri euskaldunetako anbulatorioetan euskarazko zerbitzua bermatzen ote den aztertu du Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak. Horretarako, mediku eta pediatriei erreparatu diegu. Osakidetzaren eta Osasunbidearen plantilletako datuak erabili ditugu, eta herriz herri kontrastatu ditugu datuok, anbulatorioetako arduradunekin, politikariekkin eta herritarrekin. Horren emaitza da honako taula. Bertan, **euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzeko arazoren bat duten herriak soilik agertzen dira**. Udalerriren bat agertzen ez bada, esan nahi du familia medikuek zein pediatrik badutela gaitasuna euskaraz aritzeko.

Taula ulertzeko jarraibideak:

- Bi taula osatu ditu UEMAk: Osakidetzari dagokiona (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) eta Osasunbideari dagokiona (Nafarroa).
- Taula bakoitzak hiru zutabe ditu: udalerrriaren izena, 2013ko datuak eta 2016ko datuak. Honelako datu bilketa egin genuen 2013an ere, eta alderaketak egiteko jarri ditugu orduko datuak.
- 2013ko eta 2016ko zutabeetan, bina azpizutabe ageri dira: berdea eta gorria. Berdea hizkuntza eskakizuna duten mediku eta pediatria kopuruari dagokiena da. Gorria, berriz, hizkuntza eskakizuna ez duten sendagileei dagokiena. Bi tauletan, lehen zenbakia da hizkuntza eskakizuna dutenen edo ez dutenen kopurua, eta bigarrena, “/” zeinuaren ondoren dagoena, orotara zentro horretan dauden mediku edo pediatrien kopurua. Esate baterako, zutabe berdean 2/3 agertzen bada, horrek esan nahi du hiru medikutatik bik dutela ziurtatuta hizkuntza eskakizuna.
- Hutsik dauden gelaxkak: esan nahi dute herri horretan ez dela eskaintzen zerbitzu hori edo ez dagoela arazorik euskaraz aritzeko.
- **Oin-oharrak gehitu ditugu kasuz kasu, herriz herri jaso dugun informazioarekin.** Komeni da horiei erreparatzea. Izan ere, honako kasuak aurki ditzakegu: hizkuntza eskakizuna izan arren euskaraz egiten ez duen sendagilea, euskalduna izan arren hizkuntza eskakizunik ez duena, jubilazioak, ordezkapenak, udalerrietako historialak eta abar.
- Letra beltzarekin eta horiz nabarmenduta jarri ditugu UEMAREN ustez bereziki larriak diren hutsuneak. Hau da, **profesional guztiak erdaldunak diren kasuak** azpimarratu ditugu horrela. Adibidez, pediatria bakarra eta bera erdalduna dutenak edota bi mediku eta biak erdaldunak dituztenak.

Edozein zalantza izanez gero, UEMAREN Azpeitiko bulegora dei dezakezue: 943-81 66 99 (Eneritz).

**DATUEN TAULA**

OSAKIDETZA: ARABA, BIZKAIA ETA GIPIUZKOA								
Udalerrria	Medikua				Pediatriak			
	2013		2016		2013		2016	
Egoera	H.E.rekin	H.E. gabe	H.E.rekin	H.E. gabe	H.E.rekin	H.E. gabe	H.E.rekin	H.E. gabe
Ajangiz	8/11	3/11	9/11	2/11	2/3	1/3	2/3	1/3
Artea	0/1	1/1	Plaza esleitu gabe		Ez dago pediatriarik			
Bermeoko osasun zentroa	7/11	4/11	9/11	2/11	1/2	1/2	2/2	0/2
--								
Bermeoko larrialdi zerbitzua	Daturik ez	Daturik ez	2/4	2/4	--	--	--	--
Dima	0/1	1/1	1/1	0/1 <sup>1</sup>	--	--	--	--
Lekeitioko larrialdi zerbitzuak	Daturik ez	Daturik ez	2/4	2/4	--	--	--	--
Markina-Xemein	--	--	--	--	0/1	1/1	0/1	1/1 <sup>2</sup>

<sup>1</sup> Medikua erdalduna da. Bigarren hizkuntza eskakizuna du, baina ez du egiten euskaraz. Aldaketa eskatu dute, baina oraindik ez dute lortu ezer. Ordezkapenen bat salbu, 80 urtean ez dute mediku euskaldunik izan Diman.

<sup>2</sup> Ulertu egiten du.

Munitibar	1/1	0/1	1/1	0/1 <sup>3</sup>	--	--	--	--
Ondarroako osasun zentroa	3/6	3/6	5/6	1/6 <sup>4</sup>	--	--	--	--
Ondarroako larrialdi zerbitzuak	--	--	1/4	3/4	--	--	--	--
Deba	3/5	2/5	2/4	2/4	0/1	1/1	0/1	1/1 <sup>5</sup>
Mallabia	0/1	1/1	0/1	1/1 <sup>6</sup>	--	--	--	--
Mutriku	0/1	1/1	Plaza esleitu gabe <sup>7</sup>		0/1	1/1	0/1	Plaza esleitu gabe <sup>8</sup>
Bergarako osasun zentroa	9/10	1/10	10/10	0/10	1/2	1/2	0/2	2/2 <sup>9</sup>
Bergarako larrialdi zerbitzua	Daturik ez	Daturik ez	3/4	1/4	--	--	--	--
Elgeta	0/1	1/1	0/1	1/1 <sup>10</sup>	Bergarara joaten dira zerbitzua jasotzera.			
Azpeitiko osasun zentroa	8/9	1/9	7/9	2/9 <sup>11</sup>	0/2	2/2	2/3	1/3

<sup>3</sup> Hizkuntza eskakizuna duen arren, ez du egiten euskaraz. Udaletik eraginda, aldatu nahian dabilta.

<sup>4</sup> Hizkuntz eskakizuna ez duen arren, gai da euskaraz komunikatzeko.

<sup>5</sup> Adinagatik, salbuetsita dago. Euskaraz zerbait ulertzen du, baina ez da komunikatzeko gai.

<sup>6</sup> 2017ko otsailean jubilatuko da, eta plaza libre geldituko da.

<sup>7</sup> Plaza esleitu gabe badago ere, momentuz euskalduna da ordezkapena egiten ari den medikua.

<sup>8</sup> Plaza esleitu gabe dago, eta familia mediku bat ari da pediarraren lanak egiten. Euskalduna da.

<sup>9</sup> Batek euskaraz badaki, hizkuntza eskakizuna ez izan arren.

<sup>10</sup> Hizkuntz eskakizuna ez duen arren, euskalduna da.

<sup>11</sup> Bietako bat euskara ikasten ari da, eta lehen hizkuntz eskakizuna du.

Azpeitiko larrialdi zerbitzuak	Daturik ez	Daturik ez	1/4	3/4	--	--	--	--
Beizama	Daturik ez	Daturik ez	Azpeitiko eta Alegiako anbulatorioan		Daturik ez	Daturik ez	Alegiakoa	
Aramaio	--	--	--	--	0/1	1/1	0/1	1/1
Oñati	7/8	1/8	5/8	3/8	0/2	2/2	0/2	2/2 <sup>12</sup>
Aduna (Villabonako osasun etxea)	4/6	2/6	3/6	3/6	0/2	2/2	3/3	3/3 <sup>13</sup>
Alegia	--	--	--	--	--	--	0/1	1/1 <sup>14</sup>
Amezketza	0/1	1/1	0/1	1/1 <sup>15</sup>	--	--	--	--
Altzaga eta Arama (Ordizizako osasun etxea)			4/6	2/6			1/2	1/2
Irura	--	--	0/1	1/1 <sup>16</sup>	--	--	--	--
Lizartza	--	--	0/1	1/1 <sup>17</sup>	--	--	--	--
Orendain, Ikaztegieta eta	--	--	--	--	--	--	0/1	1/1

<sup>12</sup> Bi pediatretako batek lehen hizkuntza eskakizuna du.

<sup>13</sup> Adunako haurrak bi pediatraren gaitasuna joaten dira, eta horiek badute gaitasuna euskaraz komunikatzeko, nahiz eta ez izan hizkuntza eskakizunik.

<sup>14</sup> Legorretako eta Orendaingo haurrak ere, besteak beste, joaten dira harengana.

<sup>15</sup> Euskaraz ulertzen du. Jubilatzerara doa.

<sup>16</sup> Ez du hizkuntza eskakizuna, baina euskalduna da.

<sup>17</sup> Ez du hizkuntza eskakizuna, baina euskalduna da.

Altzo (Alegiako osasun etxea)								
Legorreta	--	--	Plaza esleitu gabe <sup>18</sup>	--	--	Alegiako, erdalduna		
Tolosako osasun zentroa	10/12	2/12	8/11	3/11	2/3	1/3	1/3	2/3
Tolosako larrialdietako zerbitzua	Daturik gabe	Daturik gabe	3/4	1/4	--	--	--	--
Oiartzun	4/6	2/6	5/6	1/6 <sup>19</sup>	2/2	0/2	1/2	1/2 <sup>20</sup>
Usurbil	3/4	1/4	3/4	1/4	0/1	1/1	0/1	1/1 <sup>21</sup>
Zarauzko osasun zentroa	5/14	9/14	6/14	8/14	3/4	1/4	2/4	2/4
Zumaia	4/6	2/6	5/6	1/6 <sup>22</sup>	1/2	1/2	1/2	1/2 <sup>23</sup>

OSASUNBIDEA: NAFARROA				
Udalerria	Medikua		Pediatriak	
	2013	2016	2013	2016

<sup>18</sup> Behin-behinean, mediku euskalduna.

<sup>19</sup> Erdalduna dena jubilatua da, euskalduna sartu da haren ordean, baina esleitu gabe dago plaza.

<sup>20</sup> Hizkuntza eskakizuna duenak ez du asko erabiltzen euskara, eta zailtasunak ditu.

<sup>21</sup> Dagokion eskakizuna ez izan arren, ulertzen du euskaraz.

<sup>22</sup> Hizkuntza eskakizuna ez duen arren, badaki euskaraz.

<sup>23</sup> Hizkuntza eskakizunik ez duen medikua euskaraz hitz egiteko gai da, zailtasunak dituen arren.

Egoera	H.E. rekin	H.E. gabe	H.E.rekin	H.E. gabe	H.E.rekin	H.E. gabe	H.E.rekin	H.E. gabe
Baztan								
Elizondoko eta Irurritako osasun etxea	--	--	2/15	13/15 <sup>24</sup>	--	--	0/2	2/2
Basaburua	Daturik ez	Daturik ez	1/1	0/1 <sup>25</sup>	Daturik ez	Daturik ez	0/1	1/1
Bera	0/2	2/2	1/2 <sup>26</sup>	1/2	1/1	0/1	1/1 <sup>27</sup>	0/1
Etxalar	0/1	1/1	0/1	1/1 <sup>28</sup>	1/1	0/1	1/1	0/1
Leitza	Daturik ez	Daturik ez	--	--	0/1	1/1	0/1	1/1
Larraun	Daturik ez	Daturik ez	1/1	0/1 <sup>29</sup>	1/2	1/2	1/2	1/2 <sup>30</sup>
Goizueta	Daturik ez	Daturik ez	--	--	0/1	1/1	0/1	1/1
Arantza	1/1	0/1	1/1	0/1	1/1	0/1	1/1	0/1
Areso	Daturik ez	Daturik ez	--	--	0/1	1/1	0/1	1/1
Igantzi	1/1	0/1	1/1	0/1	1/1	0/1	1/1	0/1
Araitz	--	--	1/1	0/1	1/2	1/2	1/2	1/2

<sup>24</sup> Bi lanpostuk soilik dute hizkuntza eskakizuna, baina bederatzi familia mediku dira euskaldunak.

<sup>25</sup> Euskalduna da medikua, baina jubilatzerara doa, eta haren ordezkari sendagile erdalduna ekartzeko beldurra dute.

<sup>26</sup> Oinarrizko komunikaziorako gai da.

<sup>27</sup> Berak, Etxalarrek, Igantzik eta Arantzak pediatria bera dute. Hizkuntza eskakizuna duen arren, esaldi solteak soilik egiten ditu euskaraz.

<sup>28</sup> Gai da oinarrizko komunikaziorako.

<sup>29</sup> Medikua berri bat hasi da lanaldi erdian, eta erdalduna da. Printzipioz, haren postua ez dago Osasunbideako plantillan sartuta, hau da, behin-behineko behar bati erantzuna emateko neurria da kontratazioa.

<sup>30</sup> Leitza eta Araitzek bi pediatria konpartitzen dituzte, eskualdeko gainontzeko udalerriekin.

Bortzirietako larrialdi zerbitzuetan (UEMAko kideen artean, Arantza, Bera, Etxalar eta Igantzi) hiru mediku daude, eta bik dute ezarria hizkuntza eskakizuna. Dena dela, bakar batek ere ez du eskakizuna aterata.